



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bileraren akta

2024ko urtarrilaren 17ko, asteazkeneko, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Ohiko bilkura

Data: 2023ko abenduaren 13a, asteazkena.

Ordua: 20:00

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bilkura osatu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion) familia-arrazoiengatik, arrazoi pertsonalengatik.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bertaratu da saiora, idazkari gisa.

Saioa alkate-udalburuak deitu du, arauk ezarritako aurrerapenarekin eta publizitatea eginda, eta honako honen arabera:

Gai-zerrenda

1. Onestea 2023ko azaroaren 15eko aurreko ohiko bilkurako akta.

Ebazpen-gaiak

2. **Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzorde Irizpen-emailea (energia-jasangarritasunerako).**
 - 2.1. Arabako Errioxako Araba Buseko Lineen Gabeziei Buruzko Mozioa.
3. **Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
4. **Turismo, Gazteria eta Jai Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
 - 4.1. Tabernen ordutegi orokorraren areagotze metagarriaren 2024. urterako egutegia.
5. **Kultura, Euskara eta Kirol Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzorde Irizpen-emailea (Kontuen berezia)**
 - 6.1. Kreditu-kontuaren banku-kontratua, 2024ko abenduaren 31ko epemuga duena.

Udaleko gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa

7. Alkatezaren ebazpenen kontu laburra ematea.
Azken gaia) Galde-eskeak.

Udalbatzaren 2023 - XII – 13ko bilkuraren akta



Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da, 2023ko uztailaren 5eko saioan hartutako erabakia gauzatuz.

1. Onestea 2023ko azaroaren 15eko aurreko ohiko bilkurako akta.

Alkate jaunak aktari buruzko oharrik egiteko gonbita egin die zinegotziei. Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2023ko azaroaren 15eko aurreko bilkurako akta onestea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Ebazpen-gaiak

2. Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzorde Irizpen-emaitza (energia-jasangarritasunerako).

2.1. Arabako Errioxako Araba Buseko Lineen Gabeziei Buruzko Mozioa.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Mozioa zuzentzeko proposamen bat aurkeztu dut, eta hori aztertuko den jakin nahi nuke. Batzordeak abenduaren 5ean, asteartean, bildu ziren. Bilkura honen data bereziak izan ziren. Ez bada aztertuko, zuzenketa hurrengo bilkurarako gordeko dut.

Alkate jauna: zuzenketa herenegun aurkeztu zen, abenduaren 11n.

Inclán Gil jauna (PP): Mozioarekin nahiko ados gaude. 9. lineak Oyón-Oionen gelditu beharko luke. Erreserba-sistemak eraginkorragoa izan behar du. Mozioaren edukia ez da anbizio handikoa: lurrean geratzen diren bidaiarientzat konponbide bat bilatu behar da, taxiaren gaia ez da jorratu, ez da 8. linea zabaltzea planteatu. Lezako Ospitaleko lineak zenbait arazo ditu.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Erreserben gaia hobetu behar da, Garraio Saila entzuteko prest gaude. Ez dira kexak bakarrik jarri behar, ordutegiak proposatu behar dira, adibidez. Ibilgailuak txikiak dira, autobus handiagoak eskatu behar dira. Eta herritarrak mugikortasun-planeko inkesta erantzutera animatu. Udaleko WhatsApparen bidez inkesta zabaltzea.

Arabako Errioxako Araba Buseko Lineen Gabeziei Buruzko Mozioa bozkatu da:



Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta
Abstentzioak 1 (bat); Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Mozioa onetsi da. Onetsi den mozioaren testu osoa transkribatzen da euskaraz eta gaztelaniaz.

Arabar Errioxako Araba Bus-Eko Lineen Gabeziei Buruzko Mozioa

Gure herrietan biztanleria finkatzeko beharraz hitz egiten dugunean, lau ardatz nagusitan jarri behar dugu arreta: enplegua sortu, sustatu eta babestu behar dugu; zerbitzuak, gure bizitza duintasunez garatzeko behar den guztia berbatu behar dugu (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, ostalaritza, merkataritza...); etxebizitza eskuratu ahal izatea eta azkenik garraio publiko, merke, fidagarri eta eraginkorra bermatzea. Are gehiago, zerbitzu gehienak hiriburuan zentralizatzen dituen herrialde batean, landa inguruneko biztanleriaren zati handi bat egunero desplazatzera behartzen duena.

Kasu honetan, mugikortasunean jarri nahi dugu fokua. Arabako Errioxako mugikortasuna 8, 9, 10, 11 eta 12 lineen inguruan egituratzen da; argi eta garbi nahikoak ez direnak. Arabar Errioxa Gasteizekin lotzen duten lineak, 9. eta 12. dira. Ildo horretan, lau dira lerro hauek metatzen dituzten arazoak eta gabeziak:

- Ia egunero, hamabost minututik gorako atzerapenak daude, zerbitzua ematen duen enpresa beraren antolamenduak eragindakoak neurri handi batean, eta ez bidaiak gaizki kalkulatzegatik. Ohikoa da autobusa Gasteiz edo Logroñoko autobus geltokitik ateratzea atzerapen horiekin. Horrek benetako buruhaustek eragiten dizkie erabiltzaileei, bereziki ikasleei eta langileei, ia egunero beren ikasketetan edo lantokietan puntualtasuna mantentzeko arazoak dituztela ikusten baitute.
- Garraio publikoaren erabilera handitzeak eta herritarren kontzientziazio handiagoak linea guztiak asetu ditu, eta pertsona asko lurrean geratzen dira eta hurrengo autobusaren zain egon behar dute, normalean bi ordu geroago igaroko dena.
- Beharrezkoa da maiztasun handiagoa izatea, edo zerbitzua indartzea autobus gehiagorekin, desplazamendu ordu ohikoenetan behintzat (goizeko lehen orduetan, eguerdian eta arratsaldeko azken orduetan), erabiltzaile guztiek aldeztatik plaza izango dutela bermatzeko.
- Azkenik, lineetako txartelen fakturazio eta erreserba ereduak birpentsatu behar da. Ezin da izan plaza bat ziurtatzeko modu bakarra BAT txartelarekin erositako txartelaren prezioa bikoizten duen online txartel bat erostea izatea. Egia da txartel horrekin txartelak erreserbatzeko bitarteko bat dagoela, baina ez da erraza herritarrentzat, eta, gainera, erreserba hori benetan bermatzen ez duten akats asko pilatzen ditu.

Horregatik guztiagatik, eta Arabako Foru Aldundiak Arabako Mugikortasun Plana aztertzeko eta ebaluatzeko prozesua hasi duela aprobetxatuz, Oiongo EH Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

Udalbatzaren 2023 - XII – 13ko bilkuraren akta



1. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari eskatzen dio Arabako Errioxa Gasteizekin lotzen duten Araba Busen lineak (9. eta 12. lineak) indartu eta handitu ditzala, biztanleria finkatzeko eta landa ingurunean despopulazioaren aurka borrokatzeko mekanismo gisa.
2. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari autobusen maiztasuna handitzeko eta erabiltzaileek gehien erabiltzen dituzten ordutegietan ematen den zerbitzua indartzeko eskatzen dio.
3. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailari eskatzen dio Araba Bus-eko lineak garaiz eta behar bezala betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren tresna guztiak abian jar ditzala.
4. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailari eskatzen dio erreserba eta txartelen erosketa eredu funtzionamendua berrikusteko eta egokitzeko, erreserba eta/edo erosketa hori %100 eraginkorra izan dadin, eta Araba Bus-eko linea guztietan erabiltzaile guztiei sarbidea bermatzeko.
5. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari eskatzen dio 9 linearen (Logroño/Gasteiz) ibilbidea alda dezala, bai joatekoan, bai itzulerakoan, ibilbidean Oiongo udalerria sar dadin, eta, horrela, linea horren zerbitzua eskualdeko herrigune populatuenera eman diezaion.
6. Oiongo Udalak mozio hau Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari, Arabako Batzar Nagusiei eta Arabako Errioxako Kuadrillari helaraziko die.

Moción sobre deficiencias las líneas de Araba Bus de Rioja Alavesa

Cuando hablamos de la necesidad de fijar población en nuestros pueblos, cuatro son los ejes principales en los que debemos incidir: el empleo, creando, fomentando y apoyando el mismo; los servicios, dotando a nuestros pueblos de todo lo necesario para el desarrollo de una vida plena, sanidad, educación, servicios sociales, pero también hostelería, comercio...; el acceso a la vivienda y, vertebrando todo lo anterior, un transporte público, barato, fiable y eficaz. Más, en un herrialde que centraliza la mayor parte de servicios en la capital, lo que obliga a desplazamientos diarios a buena parte de la población del medio rural.

En este caso, queremos poner el foco en este último punto, la movilidad. La movilidad en Rioja Alavesa se vertebra en torno a 5 líneas de Araba bus; las líneas 8, 9, 10, 11 y 12, líneas que se muestran claramente insuficientes, especialmente aquellas que unen nuestra cuadrilla con Vitoria-Gasteiz, que son las líneas 9 y 12. En este sentido, cuatro son los problemas y deficiencias que acumulan estas líneas:

- Se suceden, casi a diario, retrasos de más de quince minutos, producidos en buena medida por la organización propia de la empresa concesionaria y no por un mal cálculo de los trayectos que provoque la acumulación de tiempos. Es habitual que el autobús ya salga de la estación de autobuses de Gasteiz o Logroño con esos retrasos.



Esto provoca verdaderos quebraderos de cabeza a las personas usuarias, especialmente estudiantes y trabajadoras, que ven como, casi a diario, tienen problemas para mantener la puntualidad en sus estudios o centros de trabajo.

- El aumento en el uso del transporte público y la mayor concienciación ciudadana ha saturado las líneas lo que habitualmente implica que muchas personas se quedan en tierra y deben esperar al siguiente autobús que pasará, generalmente, dos horas más tarde.
- Es necesaria una mayor frecuencia, o reforzar las frecuencias actuales con más vehículos, al menos en las horas de desplazamiento más habituales (primeras horas de la mañana, mediodía y últimas horas de la tarde) para asegurar que toda persona que necesita desplazarse pueda hacerlo en el transporte público, sabiendo de antemano que va a disponer de plaza.
- Por último, hay que repensar el modelo de facturación y reserva de billetes de las líneas. No puede ser que la única manera de asegurarse una plaza sea comprando un billete on-line cuyo precio es superior, más del doble en algunos casos, al del billete adquirido con la tarjeta BAT. Es cierto que existe un medio de reserva de billetes con dicha tarjeta, pero éste no es de acceso sencillo para la población en general, además de que acumula muchos errores que no garantizan efectivamente dicha reserva.

Por todo lo anterior, y aprovechando que la Diputación Foral de Araba ha comenzado un proceso de estudio y evaluación del Plan de Movilidad de Araba, el grupo municipal de EH Bildu en el Ayuntamiento de Oion presenta la siguiente moción para su debate y aprobación en pleno:

1. El Ayuntamiento de Oion insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a reforzar y ampliar las líneas de Araba Bus que comunican Rioja Alavesa con la capital (líneas 9 y 12), Vitoria-Gasteiz, como mecanismo para fijar población y luchar contra el despoblamiento en el medio rural.
2. El Ayuntamiento de Oion insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a aumentar el número de frecuencias, así como a reforzar las existentes en los horarios de mayor uso por las personas usuarias.
3. El Ayuntamiento de Oion insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a poner en marcha cuantas herramientas sean necesarias para garantizar la puntualidad y el buen cumplimiento horario de las líneas de Araba Bus.
4. El Ayuntamiento de Oion insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a revisar y adecuar el funcionamiento de los modelos de reserva y compra de billetes para hacer 100% efectiva dicha reserva y/o compra, garantizando el acceso a todas las personas usuarias en todas las líneas de Araba Bus.
5. El Ayuntamiento de Oion insta al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava a que se cambie el itinerario de la línea 9 (Logroño / Gasteiz) tanto en la ida como en la vuelta para que se incluya en el itinerario el municipio de Oion, y así dar el servicio de esta línea al núcleo urbano más poblado de la comarca.



6. El Ayuntamiento de Oion trasladará esta moción al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava, a las Juntas Generales de Álava y a la Cuadrilla de Rioja Alavesa.

3. **Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**

4. **Turismo, Gazteria eta Jai Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**

- 4.1. **Tabernen ordutegi orokorraren areagotze metagarriaren 2024. urterako egutegia.**

Alkate jauna: Proposamena tabernei helarazi zaie eta ez dute interes handirik erakutsi. Proposamenak 22 egun ditu. Festetako azken eguna luzatu da arazoak egon ez daitezten.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Ordutegi-askatasuna hausnartu da?

Alkate jauna: Nire lehenengo astean, Ertzaintzako komisarioari galdetu nion eta ez da posible. Arauzko ordutegitik kanpoko luzapenak ezin dira baimendu, eta irekita egonez gero, tabernen arriskuaren kontura izango da.

Inclán Gil jauna (PP): Ez dugu uste ordutegi-askatasuna beharrezkoa denik. Oso tokiko gaia da Labrazan...

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Proposatutako datekin ados nago. Beste urte batzuen oso antzekoa da.

Aurrekariak:

1. Tabernen ordutegiak eta bestelako jarduera-baldintzak arautzen dituen araudia jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua da, 2019ko otsailaren 21eko EHAAn (37. zk.) argitaratu zen.
2. Udal-agintariei 17/2019 Dekretuak aitortzen die ordutegia gehienez bi ordu luzatzeko eskumena.
3. Oyón-Oiongo Udalak nahasitako eragileekin negoziatu du 2024rako establezimenduen ordutegi orokorra zabaltzeko proposamena.
4. Tabernen ordutegi orokorraren areagotze metagarriaren urteko egutegia zinegotziei helarazi zaie.
5. Establezimenduen ordutegi orokorraren areagotze metagarria honako jardueramurrizketa hauetara egokituko da:
 - I. Aisialdiko jarduerak ezingo dira 06:00ak baino lehenago hasi.
 - II. Ixteko edo amaitzeko ezarritako ordutegiaren (benetan bete den ala ez kontuan hartu gabe) eta irekitzeko edo hasteko ordutegiaren artean gutxienez hiru ordu igaro behar dira. Establezimenduaren titularrak Udalari formalki jakinarazten badio baimendutako ordutegi-luzapenari uko egiten diola, nahitaezko itxiera-aldia aurreikusitako itxiera-ordutegi orokorretik aurrera zenbatuko da.

Udalbatzaren 2023 - XII – 13ko bilkuraren akta



- III. Dena den, debekatuta dago 11:00k baino lehen hasia ikus-entzunezko edo musikako ekipoen funtzionamendua, baita emanaldiak, dantza-pistak edo antzekoak eta orokorrean, zarata gogaikarriak sor ditzakeen edozein jarduera ere.
- IV. Luzapenak ez du terrazaren erabilera-ordutegia luzatzen. Ordutegia amaitzean, eta gehienez ere 30 minutuko epean, bide publikotik kendu beharko dira altzariak, edo, bestela, jasota geratu beharko dira, kentzeko ordutik aurrera inork altzariak bide publikoan berriro ez jartzeko.
- V. Luzapena orokorra da lokal guztietarako eta ez da luzapen berezirik emango.
6. Informazio-batzordean aurkeztutako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Arestian aipatutako establezimenduen ordutegi orokorraren areagotze metagarriaren urteko ordutegia onestea.
1. Establezimenduen ordutegi orokorraren areagotze metagarria honako jardueramurrizketa hauetara egokituko da:
 - I. Aisialdiko jarduerak ezingo dira 06:00ak baino lehenago hasi.
 - II. Ixteko edo amaitzeko ezarritako ordutegiaren (benetan bete den ala ez kontuan hartu gabe) eta irekitzeko edo hasteko ordutegiaren artean gutxienez hiru ordu igaro behar dira. Establezimenduaren titularrak Udalari formalki jakinarazten badio baimendutako ordutegi luzapenari uko egiten diola, nahitaezko itxiera-aldia aurreikusitako itxiera-ordutegi orokorretik aurrera zenbatuko da.
 - III. Dena den, debekatuta dago 11:00k baino lehen hasia ikus-entzunezko edo musikako ekipoen funtzionamendua, baita emanaldiak, dantza-pistak edo antzekoak eta orokorrean, zarata gogaikarriak sor ditzakeen edozein jarduera.
 - IV. Luzapenak ez du terrazaren erabilera-ordutegia luzatzen. Ordutegia amaitzean, eta gehienez ere 30 minutuko epean, bide publikotik kendu beharko dira altzariak, edo, bestela, jasota geratu beharko dira, kentzeko ordutik aurrera inork altzariak bide publikoan berriro ez jartzeko.
 - V. Luzapena orokorra da lokal guztietarako eta ez da luzapen berezirik emango.
 2. Ordutegien luzapena Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzari eta Biasteriko Ertzaintzaren komisariari jakinaraziko zaio.

Aldeko 10 (hamar) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

5. Kultura, Euskara eta Kirol Informazio Batzorde Irizpen-emailea.

7. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzorde Irizpen-emailea (Kontuen berezia)

6.1. Kreditu-kontuaren banku-kontratua, 2024ko abenduaren 31ko epemuga duena.

Udalbatzaren 2023 - XII - 13ko bilkuraren akta



Aurrekariak

1. Finantza-erakundearekin urteko kreditu-kontuaren kontratua sinatzeko espedientea hasia. Diruzaintzako eragiketa hori hitzartuta dago kobrantzen eta ordainketen arteko desfase iragankorrei aurre egiteko. Gehieneko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro. Hasierarekin Oyón-Oionen bulego ireki bat duten finantza-erakundeei gonbidapena egin zaie: Kutxabank, La Caixa, Laboral Kutxa eta Santander. Eskaintzak erabilitako kapitalaren gaineko interes-tasa eta, hala badagokio, aplikatu beharreko banku-komisioak adieraziko ditu. Eragiketa 2024ko abenduaren 31n indargabetuta geratu beharko da.
2. Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 56.1 artikulua aplikatu behar da. Horren arabera, toki-erakundeek diruzaintzako eragiketak hitzartu ahal izango dituzte edozein finantza-erakundeekin, urtebeterako gehienez ere, beren ordainketa eta diru-sarreraren epemugeren diferentziatik eratorritako aldi baterako likidezia-defizitak estaltzeko, Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren 51. artikulua araberaz.
3. Toki-ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 51. artikulua xedatutakoa aplikatu behar da. Artikulu horretan ezartzen denez, arau honetan aurreikusitako baldintzetan eta erakunde eskudunek zehazten dituzten xedapenen esparruan, Arabako Lurralde Historikoko udalerriek eta haien erakunde autonomoek, Udaltzaren Osoko Bilkurak alde aurretik erabakia hartuta, honako hauek hitzartu ahal izango dituzte: b) Diruzaintzako eragiketak edozein finantza-erakunderekin eta urtebetetik gorakoa ez den epea, diruzaintzako aldi baterako beharrei erantzuteko; horiek erakunde eskudunek zehazten dituzte.
4. Kontratazio-mahaiaren 2023ko abenduaren 11ko akta, aurkeztutako eskaintzak jasotzen dituena eta honako hau diona.
 - a. Laboral Kutxa, irekiera-komisioa: interes-tasa % 0: urteko finkoa % 3,94, erabili gabeko saldo-komisioa: urteko % 0,10, hiruhileko sortzapenaren interesak.
 - b. Kutxabank, irekiera komisioa: interes-tasa % 0: urteko finkoa % 4,15, erabili gabeko saldo-komisioa: urteko % 0,10, hiruhileko sortzapenaren interesak.
5. Kontratazio-mahaiaren proposamena transkribatzen da:

Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Laboral Kutxari adjudikatzea. Honako baldintza hauek proposatzen ditu: gehieneko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro, baliogabetzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31, erabilitako kapitalaren gaineko urteko interes-tasa nominala % 3,94, erabili gabeko saldo-komisioa: urteko % 0,10, hiruhileko sortzapenaren interesak. Udalaren fede-emaile publikoaren aurrean formalizatua: udal-idazkaria.
6. Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

1. Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Santander Laboral Kutxari adjudikatzea. Honako baldintza hauek proposatzen ditu: gehieneko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro, baliogabetzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31, erabilitako kapitalaren gaineko urteko interes-tasa nominala % 3,94, erabili gabeko saldo-

Udalbatzaren 2023 - XII - 13ko bilkuraren akta



- komisioa: urteko % 0,10, hiruhileko sortzapenaren interesak. Udalaren fede-emaile publikoaren aurrean formalizatua: udal-idazkaria.
2. Alkate jauna, José Manuel Villanueva Gutiérrez, beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko ahalduntzea.
 3. Ebazpen hau Arabako Foru Aldundiko Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari helaraztea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

8. Alkatezaren ebazpenen kontu laburra ematea.

Alkateak Udalbatzari igorri dizkio 2023ko azaroaren 14ko 275 ebazpenetik bilkura honetarako deialdia egin zen egunera arte eman ziren alkatezaren ebazpen guztiak. Azaroaren 14ko 275 ebazpenetik abenduaren 1eko 295 ebazpenera bitartekoak dira, zinegotziek udal-administrazioaren garapenaren berri izan dezaten, gobernu-organoak kontrolatu eta fiskalizatzeko.

Ez da galderarik egin.

Azken gaia) Galde-eskeak

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Sociedad Deportiva Oyonesarekin hitzarmena sinatu da?

Bengoechea Múgica jauna (EH Bildu Oion): Akordio-proposamena aurkeztu genien eta ez dute erantzun.

Inclán Gil jauna (PP): Gabonetako programa buzoien bidez noiz zabalduko den jakin nahi dugu.

Alkate jauna: Programa duela aste bat banatu zen.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): urtarrilaren 15ean, ostiralean, batzar batean aurrekontuak herritarrei aurkeztuko zaiela jakinarazi da. Zinegotziek baino lehenago ezagutuko dute, noiz aurkeztuko zaie zinegotzietan?

Alkate jauna: abenduaren 15eko herritar-batzarrean aurrekontuen lerro orokorrak azalduko dira. Gure ideia zinegotzietan aurrekontua abenduaren 22a baino lehen igortzea da.



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura 20:40an (saioa CCXXXII urteko, Izoztearen hogeita batgarrenaren, hirugarren hamarkadaren lehen eguneko 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2024ko urtarrilaren 9an.
Udaleko idazkaria:

Alkatetzak O. E.: